BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2661

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 5ekoa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, Sheitek Automatización Industrial, S.L.L. sozietateari (B75036442) ez-betetze espedientea irekitzeko dena, Gaitek Programaren 2011ko deialdian emandako diru-laguntzari dagokionez.

Espediente-zenbakia: IG-2011/0000876.

Aipatu ebazpena Sheitek Automatización Industrial, S.L.L. entitateari jakinarazterik ez dugu izan, hainbat saio egin dugun arren sozietatearen azken helbidean (Industrialdea, 50 pabilioia, Azkoitia). Hori dela eta, ebazpena argitaratzen da, oso-osorik:

Ikusi da Sheitek Automatización Industrial, S.L.L. sozietateari (B75036442) ireki zaion espedientea, 2008ko azaroaren 27ko Aginduaren bidez araututako programaren barruan. 2009ko abenduaren 23ko Aginduak aldatu zuen agindu hori, zeinak produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programa arautu baitzuen (Gaitek programa).

AURREKARIAK

2011ko maiatzaren 31n, Sheitek Automatización Industrial, S.L.L. sozietateak (B75036442) Gaitek programaren agindu arautzailean xedatutako laguntzetara atxikitzeko eskabidea aurkeztu zuen (Gaitek programa, produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programa).

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak, 2011ko abenduaren 2an, Sheitek Automatización Industrial, S.L.L. sozietateari (B75036442) diru-laguntza bat emateko ebazpena eman zuen; laguntza hori 34.611,62 eurokoa zen, itzuli behar ez zena. Ebazpen haren bidez, halaber, agintzen zen emandako diru-laguntzaren % 70 ordaintzeko –24.228,13 euro–, eta adierazten zen ezen aurreikusitako programa zenbateraino betetzen zen, halako proportzioan ordainduko zela diru-laguntzaren gainerakoa, betiere agiri bidez justifikatu ostean.

Sheitek Automatización Industria,l S.L.L. sozietateak (B75036442) proiektua justifikatzeko agiriak aurkeztu zituen, horretarako emandako epean.

Teknologia eta Estrategia Zuzendaritzak enpresari idazki bat helarazi zion, Foru Ogasunaren ziurtagiri eguneratua eskatzeko (idazkiaren irteera-zenbakia: 432274).

Onuradunak ez duenez aurkeztu zerga-obligazioak beteak dituela egiaztatzeko agiririk, ez-betetze espedientea ireki zen, aipatu arauaren 23. artikuluarekin bat etorriz; izan ere, arau horretan honako hau xedatzen da: araudi aplikagarrian ezarritako betekizunak ez betetzeak edota ebazpenean ezarritako baldintzak ez betetzeak ebazpena indargabetzea eta laguntzak eta legezko interesak itzuli beharra ekarriko du, aldez aurretik ez-betetze espedientea eman eta gero.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

EAEko aurrekontu orokorren kargura diru-laguntzak eskuratzen dituzten onuradunen zerga-obligazioak bete direla egiaztatzeari buruzko Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduaren 3. artikuluarekin bat etorriz, zerga-betebeharrak bete direla

egiaztatu beharko da, baldin eta ordainketak egin behar badira emate-ekitaldiaren ondorengo ekitaldietan, eta hiru hilabete baino gehiago igaro badira ordutik.

Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren bitartez, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru-laguntzen berme eta itzulketetarako araubidea, eta, bestetik, kudeaketa parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubide eta obligazioak ezartzen dira. Bada, dekretu horren 4.1 artikuluak honako hau ezartzen du: «Euskal Autonomia Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan emandako dirulaguntzaren edo laguntzen onuradunak, eman eta eskuratutako zenbatekoa eta legez aplikagarriak izan daitezkeen interesak itzuli egin beharko ditu, honako kasu hauetakoren bat gerta dadinean: laguntza horretarako eskatu eta eman zen zertarakoetarako ez erabiltzea, dirulaguntza edo laguntzaren jatorri izan zen ekintzarako ez erabiltzea, eskatu zen helburu jakinetan erabili dela ez justifikatzea edo, oro har, maiatzaren 303ko 1/1991 Legeko 31.4 artikuluan edo dagokion arautegian ezartzen diren eginbeharrak ez betetzea.»

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordeak honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Sheitek Automatización Industrial, S.L.L. sozietateari (B75036442), zerga-obligazioak bete direla ez egiaztatzeagatik, ez-betetze espedientea irekitzea, hain zuzen ere, ordaintzeko dagoen diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratzeko (10.383,49 euro).

Bigarrena.– Bere interesen alde egoki deritzona alegatzeko, 15 egun balioduneko epea ematen zaio interesdunari.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 5a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.